

Euskal Herria: egonkorra eta osatua

Xabier Etxaniz*

Azken bi hamarkadetan euskarazko haur eta gazte literaturaren sisteman eman diren aldaketa ugari eta garrantzitsuen ondoren, merkatua sortzeko emanikoa aldaketak, irakurzaletasuna bultzatzekoak, irakurleak, idazleak eta ilustratzaileak sortzeko aladaketan ondoren, gure HGL egoera egonkorragoan dago, eta, ondorioz, ematen diren aldaketak, berrikuntzak, aporazioak ez dira hain nabarmenak, hain nabariak.

Aldi berean, egoera honek ekarri du merkatuan egon zitezkeen hutsuneak apur-apurka osatzen joatea; hots, behar batzuk asetu ondoren egon zitezkeen gainerakoekin gauza bera egitea.

Azterketa guztiak egiterakoan, geure kasu honetan azken urteotako haur eta gazte literaturaren azterketa egiterakoan, aztertzaileak zenbait datu objektibo azter ditzake, argitaraturiko idazlanak, sariak, argitaratutako obren kopurua, eta abar, eta ondoren bere iritzia eman; baina, era berean, bada beste irizpide bat, subjektiboa, alegia, norberaren ustean oinarritzen dena; hots, zein den azken urte honi buruzko dugun ustea. Ez da hau gure aukera, baina onartu egin behar dugu azken urteotako azterketa egiterakoan alde zurretik dugun ustea positiboa dela, nahiz eta horretarako aparteko gertakariak, aparteko idazlanak, ez egon. Hori bai, hainbat gertakari egon dira, sari eman, argitalpen kale-ratu, eta horiek guztiek bultzatu gaituzte arestian aipaturiko baikortasun hori izatera. Jakina, irizpide hauek duten subjektibitate guztiarekin.


Antzerki lan bat

Antzerkigintza ez da euskal HGLren generorik garrantzitsuenak. Gutxi dira argitaratzen diren obrak, baina, poesian gertatzen den bezala, azken urteotan etengabeko argitalpenak eman dira urtez urte. Xabier Diaz Esartek idatzirik *Zape, Katu jauna* (Erein, 2002) dugu horren adibide garbia. Umore tonuan idatzirik, Casonaren Don Gato, Tom eta Jerry edo Pérez sagutoaren aipamenak jasotzen dituen obra ongi egituratua dugu hau.

Baina ez da izan Diaz Esartena antzerkia eta HGL lotzen dituen gertakari bakarra azken urte honetan. Berriki eman da Korrika-AEK beka antzerki lan bat egiteko eta Eneko Olasagastik prestatuko du Koldo Izagirre-ren Metxa pertsonaia ezagunean oinarrituriko obra. Lehen aldia da, guk dakigula, gazte literaturako idazlan bat erabiltzen dena horrelako ekoizpena egiteko eta, jakina, albiste pozgarria da haur eta gazte literaturarako.

4 bilduma haur txikien albumetan

Antzerki idazlanekin gertatzen zen bezala, haur txikientzako albumak edo ipuin ilustratuak urtero argitaratu izan dira, baina liburu bakarren bat edo beste argitaratu. Joera hori Kalandraka argitaletxe galiziarrek euskaraz argitaratzeari ekin zionean hautsi zen; Kalandrakako liburuek izaniko harrera onak eta Euskadi saria lehen irakurleei zuzenduri-



ANTTON OLARIAGA, GALTZERDI SUIZIDA, ELKARLANEAN, 2001.

ko obra bati emateak, *Jonas eta hozkailu beldurtia*, J. K. Igerabide, eragin zuzena izan zuten haur txikientzako liburuen argitalpengintzan (Aizkorri argitaletxearen Mendi Sorgindua bilduma, herri ipuinak biltzen dituen Ereingo Urrezko Giltza bilduma, edo Elkarrek azken urteotan sorturikoak ditugu adibide garbiak). Baina azken urte honetan ekarpenik interesgarriena, eta aberatsena, Desclée de Brouwer argitaletxe bilbotarrak sorturiko albumen bilduma berria izan da, zalantzarik gabe.



Liburuen estetikak, literatura estiloak eta genero nahasketak aberastasun aparta ematen diote bildumari, kaleratutako lau liburuei. Izan ere, *Marrastuidazu gutun bat* (Patxi Zubizarretak idatzia eta Markok ilustratua) bezalako ongi kontaturiko ipuin zoragarrien ondoan, *Nora hoa, Xirimola?* (Asismo Urmeneta-

ren eta Goñiren artean eginikoa) bezalako albumak aurki daitezke edo egoera zehatza adierazten duen eta J. K. Igerabidek idatzi eta Markok ilustratu duen *Daratulua* albuma. Liburu hauek guztiak euskaraz eta gazteleraz idatzi dira, euskal argitaletxeetan oso ohikoa ez dena, eta ziur gaudela euskaldunok ez ezik erdal jendeak ere gozatu ahal izango duela aipaturiko obra horiekin.

Era berean, iparraldeko Gatzuzain argitaletxeak, Parisko Mag-nard etxearekin batera, haur txikientzako zenbait liburu argitaratu ditu, batik bat iparraldeko neska-mutilengan pentsatuta, beren euskarara egokituak.

7 gau ospitalean

Azken urte honetan argitaratu diren liburuen artean egon da aztertzaile honen arretera erakarri



duen bat baino gehiago, batzuk gaia dela eta, beste batzuk egituraren originaltasunagatik, idazlan klasiko modernoaren itzulpenak ere egon dira (Joseba Santxok eginiko Roald Dahlen Errima errebeldeak —Alfaguara/Zubia, 2001)—; edo Agustín Fernández Paz, Gemma Lienas, Jordi Sierra i Fabra eta abarren lanak), bilduma berriak sortu dira... guk atal honetan —eta honen hasieran bederen— elkarrekin aritu diren hiru artistari egin nahi izan diogu omenalditxo bat; haur txikiarentzako liburu bat egiteko elkartu ziren Patxi Zubizarreta, Juan Kruz Igerabide eta Elena Odriozolari. Lehen biek egitura gero eta irekigoa duen idazlana egin dute, ospitalean zazpi gau igarotzen dituen Paula neskaren inguruan. Bakardade-tik abiatuta, literaturaren elkartasunera; izan ere, gauero jende gehiago bilduko da Paularen ohe ondora literaturak erakarrita eta bakoitzak bere esperientzia gehituko dio obrari; ipuinak, liburuen kapituluak, igarkizunak... idazlana osatzen duten puzzle pieza txikiak dira. Elena Odriozolaren ilustrazioek ederki osatzen dute liburu zoragarri hau: *Paularen zazpi gauak* (Edebé, 2002).

Bestelako gaixotasun batek

aitzakia ematen digu Jon Suarez-en azken idazlanaz gozatzeko: *Luzi, Fer!* (Aizkorri, 2002). Estilo arin eta biziz idatzitako ipuin honetan Luzia eta Fernando neba-arreba bizkiak Luzi eta Fer bihurtuko dira guraso, amona, andereño eta gainerakoen aurrean. Hots, deabrutxo batzuk, gurasoen arazoak direla eta, agobaiatzen diren bi deabrutxo, izan ere gurasoek banaturik egiten dute lo, ohiturak hautsi, hortz-eskuilak bereiztu, eta abar. Egoera korapilatsu eta larri horri amaiera dibertigarria bilatu dio Jon Suarezek, eta Mikel Valverderen irudi paregabeek ederki lagundu dute giro hori lortzen.

Halaber, beste gaixo bat dugu (eta amaiera dibertigarria ere) *Pako fakirra* (Elkar, 2002), Xabier eta Martin Etxeberria anaiek idatzirik ipuina. Bertan Pako fakirriari odolean burni gehiegi duela esaten diote, eta erregimen gogorra jarri: berdurak. Egoera horrek buruhauste batzuk sortaraziko dizkio Pakori, baina baita irtenbide dibertigarria. Xabier eta Martin Etxeberria, beste batzuekin batera, belaunaldi berriaren ekarpena dira gure letretara, kostata ematen ari den berrikuntza honetan beraiekin batera egon dira aurtan beste zeinbat idazle, hala nola, Jasone Osoro —*Jara*

(Alfaguara, 2001)—, Ana Urkiza —*Betaurrekoak ditut, eta zer?* (Elkarlanean, 2001)—; edo Arantxa Iturbe —*Nik eserita egiten dut, eta zer?* eta *Beldurtia naiz, eta zer?* (biak Elkarlanean argitaletxean, 2001). Azken hauek beren lehen idazlanak kaleratu dituzten haur eta gazte literaturan, Xabier Olaso poetak bezala *Auskalo!* (*Igarkizun eta aho-korapiloak*) (Pamiela, 2001), liburuarekin edo Iban Zaldua, helduen literaturan eza-guna dena, rock musika, maitasuna eta dibortzioa bezalako gaiak ukitzen dituena bere lehen lan honetan: *Kea ur gainean* (Elkar, 2002).

10 Tales-ipuin

Tales-ipuin elebrietan, ingelez eta euskaraz. Horixe da hirugarren urtean jarraian *Gara* egunkariak argitaratu duena gabonetako promozioan. Hirugarren urtez euskal idazleek idatzirik ipuinak banatu ditu gabonetan (beti elebrietan), haur eta gazte literaturaturan arituriko idazleak (J. Iturralde, M. A. Meabe, J. K. Igerabide, A. Lertxundi, eta abar) eta helduen literaturaturan aritutakoak (Harkatiz Cano, Ana Urkiza, eta abar) nahas-

tuz. Bilduma horrek, Erein etxearen Sasi Guztien Gaietik bildumak bezala, euskal HGL bultzatzen lagundu du, HGL komunikabideetan, merkatuan, gizar-tean presenteko egon dadin, lagundu du.

Gauza bera esan dezakegu *Karramarro uhartea* pelikularen komertzializazioaren inguruan kaleraturiko liburuekin (sei kaleratu dira oraingoz; Ttartalo, 2001-02); guztiak dira pelikularik kontuen inguruan eta Inazio Mujika eta Joxean Muñozen artean idatzi dira; irudiak, aldiz, J. A. Lopetegirenak dira.

Komunikabideak eta haur eta gazte literaturaren arteko harremanaren beste adibide bat dugu Patxi Zubizarretak idatzirik Usoa bilduma. Astero-astero *E. Egunkariako* «Xingola» gehigarrian kaleraturiko testuen ondorioz plazaratu dira bilduma horretako lehen bi liburuak: *Lehen kanpamendua* eta *Zelatan* (Erein, 2002), Patxi Zubizarreta-Elena Odriozola. Beraietan, egunkarian bezala, irakurleak. Usoa neskatoarekin egiten du topo, Afrikatik etorri eta hemen adoptatu zuten neskatoarekin alegia. Usoaren lehen kanpamendua udan, abenturak, lagunak... gure gizarteko neskatobaten gertakariak kontatzen zaizkigun maisuki narraturik, kariñoz eta arintasunez, zoragarri editaturiko bilduma batean.

6 zenbaki plazaraturik

Zoragarri editatu dira *Behinola* aldizkariaren lehen sei zenbakiak ere. Hainbat erakunderen laguntzaren ondorioz (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiak, batik bat), Galtzagorri elkarteak zeinbat ekimen aurrera atera ditu azken urte honetan (Jardunaldiak, Kongresoak, Liburu gaztea eta Altxorraren kutxa kanpainak, edo berriki inaguratu den www.galtzagorri.org interneteko orri

interesgarria). Arestian aipaturiko aldizkaria ere horietako bat dugu, eta guraso, irakasle, liburuazain edo ikertzaileentzat guztiz gomendagarria den produktua dugu hau, izan ere kalitatean gero eta idazlan hobeak argitaratzen badira ere —*Thailandiako noodle izugarriak* (Alberdania, 2001), J. Cillero; *Lurraren taupadak* (Alfaguara-Zubia, 2001), J. Arretxe; *Poloniako lautada izoztuak* (Igela, 2001), J. Iturralde, edo *Deborah hondartza barkarti batean* (Erein, 2002), P. Aristi, esate baterako, egia da ere, gero eta idazlan gehiago plazaratzen direla.

Baina, aurrekoaren kontrako badirudi ere, ez dira ugari literatura lehiaketetara aurkezten diren obrak. Aurten, dena dela, horiek dituzten betebeharrak nagusinetariko bi bete dituzte. Horrela, idazle berria plazaratzeko aukera izan du Erein etxeak Lizardi sariaren inguruan: Karlos Zabala Oiarzabal —*Karakol Txikiren ipuinak* (Erein, 2002)—. Bestetik Apirila sariaren inguruan aspaldian HGLn lanik kaleratu gabeko Hasier Etxeberria itzuli da gure plazara. Haren *Inesaren balada* (Elkar-Argitaletxe elkartuak, 2002) finalista izan zen lehiaketan. Balada horretan neska gazte baten abenturak ezagutzeko parada izango du, gurasoen ostaturia utzi eta mendi aldetik itsas baztertera joango da mutil bihurtuta kortasario izateko asmoz XVIII. mendean girotutako abenturazko nobela entretenigarria idatzi du Hasier Etxeberriak, eta irakurleak mutiko izena duen neska horren bigarren liburuaren zain geratzen da gozatu ederra hartu ondoren.


3 emakume idazle

Haur literatura emakumezkoa dela diote (nahiz eta idazle emakumezkoak gutxienezkoak izan eta zenbait protagonista neska

mutil izena erabili), eta egia da aurten hainbat emakumezko idazleak, arrazoi ezberdinak direla kausa, aipamen berezia merezi dutela.

Batzuek, zenbait urtetako isilaldiaren ondoren haurrentzako liburuak argitaratu dituztelako berriro. Marijan Minaberri, euskal haur literaturan aintzindaria, dugu horietako bat bere *Puxka* (Gatuzain, 2001) idazlanarekin, edo *Basamortuko malkoa* (Erein, 2001) Arantxa Urretabizkaiaren ipuina. Beste batzuk aipatu behar dira beren lehen obrak argitaratu dituztelako; arestiko Ana Urkiza, Arantxa Iturbe, esaterako, edo Ixiar Rozas eta Maialen Zubeldia; bestetarik aurreko urteetako lanari jarraipena eman dituelako (Arrate Egaña, Enkarni Genua, eta abar), baina guztien artean badira bereziki aipatu beharreko hiru idazle.

Yolanda Arrieta dugu lehena. 2001 urte amaieran gazte literaturako idazlanik interesgarrienetariko bat plazaratu zuen: *Jostorratza eta haria* (Alberdania). Egitura originala erabiliz (jostun egitura darabil obran) hiru belaunalditako istorioa kontatuko zaigu adabakiz osaturiko nobela honetan.



Maite Gonzalez Esnalek, *Maidarren taupada bilduma* (Alberdania, 2002) idazlanean, bihotz taupadak biltzen dituen Maider neskatoaren istorioa kontatuko digu hizkera simple eta poetikoa erabiliz, azken xehetasuneraino landuz.

Baina aztertzen ari garen epean idazleren bat nabarmendu baldin bada, hori, zalantzarik gabe, Mariasun Landa dugu. Azken urte honetan hiru idazlan paregabeak uzta utzi digu (eta, guk dakigula, lehendabiziko aldia da euskal idazle baten bi idazlan sartzen direla sari nazionalean finalisten artean). *Galtzerdi suitzida* (Elkarlanean, 2001) gure gizarteari buruzko gogoeta bat dugu, baina galtzerdi baten ikuspuntutik eginiko deskribapenak umorea eta ironia islatzen dituzte. Antton Olariagaren irudiek, gainera, ederki islatzen dituzte aurreko umorea, ironia eta ikuspuntu berezia. Irudigile berak egin ditu M. Landaren beste obra baten ilustrazioak: *Krokodiloa ohe azpian* (Alberdania, 2002 eta Labaien Saria) nobela, hain zuzen. Bertan, idazleak egoera surrealistikak erabiliz, umore kutsua galdu

gabe beti, gure bizitzaz, baloreez, hauen ondorioez gogoeta egitera behartzen gaitu. Mariasun Landaren hirugarren obra, berriz, *Elefante txori-bihotza* (Anaya-Haritz, 2001) dugu.

Zozo zuri bat

Elefante txori-bihotza (Anaya-Haritz, 2001) ipuina da artikulatu honen hasieran aipatzen genuen baikortasunera animatzen gaituzten elementotako bat. Izan ere, euskal haur eta gazte literaturan lehenbiziko bider eman zaio idazlan bati zozo zuria aipamena. *Elefante txori-bihotza* (Anaya-Haritz, 2001) ipuinean umorea eta kritika elkarren ondoan daude eta Urberuagaren irudiek ederki asmatzen dute idazlanaren tonuarekin. Alde horretatik Jungendbibliothek-ek emaniko zozo zuria aipamenak bide onetik goazela adierazten digu. ■



CONCETTA PROBANZA, KARAKOL TXIKIREN IPUINAK, EREIN, 2002.